

LEIOA. Meza nagusia izango da bihar arrastian, eta asteburuan ekitaldi asko egongo dira

Veronica Muñoz |

Lamiakoko jaiak gero eta hurrago daukaguz. Hain zuzen be, bihar bertan meza nagusia egingo dabe auzoko elizan, eta San Juan Bautista abesbatzeak abestuko dau, arrastiko 19:30ean. Beste alde batetik, Lamiakoko jaiak ospatzeko ekitaldiak barikuan hasiko dira, eta asteburu osoan jai giroa nagusi izango da Leioako auzoan.

Ekitaldi guztien artean, nabarmentzekoa da Lamiakoko Maskaradea. Datorren barikuan agertuko dabe ikuskizun eder hori, antxinako kondairatan oinarrituta. Izan be, Sugar Mariren kobazulora ulea orraztera joaten zala dino kondairak, eta hortik dator Lamiako auzoaren jaiotzea.

Hiru zatitan agertuko dabe ikuskizuna, Maskaradea antzeztu eben lehenengo urtetik ohitua izan dan lez. Lehenengo zatia arrastiko 17:00etan hasiko da, Langileria kalean, kalejira alaiagaz. Ordubete beranduago, kondairako pertsonaje mitologiko guztiak alkartuko dira, eta Laminen dantzea agertuko dabe. Eta amaitezko, gaueko 22:30etik aurrera Lamiako auzoko elizaren ondoan Akelarrea egingo dabe.

Datorren urtean, 25 urte

Lamiakoko Maskaradea 1978an agertu eben lehenengoz. Beraz, datorren urtean 25 urte beteko dauz ikuskizun ederak, eta arduradunak dagoeneko urteurren berezia behar dan moduan ospatzeko erea aztertzen dabilz. Aurten be hainbat ekitaldi berezi egin dabe horren inguruan, besteak beste Maskaradearen ganeko erakusketea herriko hainbat lekutan, berbaldiak eta abar.

Maskaradea jaien barruan

Maskaradea izango da barriro protagonista Lamiako auzoko jaietan

Ikuskizuna barikuan agertuko dabe Lamiakon, betiko lez hiru zatitan



Antxinako kondairatan dago oinarrituta Lamiakoko Maskaradea.

egingo dabe, eta Lamiakokoek beste hainbat ekitaldi eratu dabez datozan egunotarako. Holan, datorren barikuan koadriren jaiatsiera, Hakker taldeko kontzertua eta Briel mago leioztarraren ikuskizuna egongo dira besteak beste.

Zapatuan eta domekan be ederto igaroteko egitarau zabal gertau dabe, edade guztietako herrikoentzat. Zapatu goizean

an tailerrak egingo dabez txikiei zuzenduta, eta egun osoan kirol ekitaldiak, sardina erreak eta dantzaldia egongo dira beste ekitaldi batzuen artean. Eguna agurtzeko, Asier Bilbaok transformismo ikuskizuna eskainiko dau, eta Luz verde taldearen kontzertuaren ostean karaokea ipiniko dabe.

Jaietako azken txanpan, domeka goizean umeentzako par-

kea, txistularien kalejireia, eta ezkonbako emakumeek ezkonbata dagozanen aurka urtero jokutzen daben futbol partidua be prestatu dabez.

Domeka arrastian Play-back lehiaketea, sokamuturra eta berbena egongo dira, eta jaiak agurtzeko sariak bananduko dabez jaietan parte hartzen daben koadrila guztien artean, gaueko 22:45ean.

SOPELA. Metal arloan behar egiteko ikastaroa prestatzen dabilz, emakumeei zuzenduta

V.M. |

Udal barruko jardueran eta jardura politikoa be emakumeen alde egiteko ekimenak jasoten dauzan eskuliburua atara dau Sopelako Udalak. Izan be, behar hori azkeneko lau hileotan eginiko ikerketa sakonaren emaitza da. Ekimen horren bidez, emakumeen parte-hartzea zabaldu gura dabe udalerriko bizitzaren arlo guztietan.

Eskuliburua egiten Udaleko beharginek eta udalerriko hainbat taldek lagundu dabe. Guztien artean, hain zuzen be, nabarmentzekoa da Itzartu emakume taldeak emondako laguntasuna. Talde horretan

Andrak gizartean integretako ekimenak jasoten dauzan eskuliburua prestatu dabe

1.000 emakume inguru dagoz sartuta, hau da, herritarren %10 inguru. Ikerketaren bidez lortutako datuen arabera, besteak beste Bardintasun Plana diseinatuko preminea jaso dabe, eta datozan hileotan egin gura dabe.

Danak 'Berdin'

Berdin izeneko proiektua be laster ipiniko dabe martxan, Uribe Kostako Behargintzak sustatuta. Helburu nagusia da emaku-

meak metal arloan sartzea, jardura horretan gaur egun emakume gitxi behar egiten dabelako. Lau zatitan egingo dabe programea: hasteko lanbide heziketea emongo deusie andrei. Bigarren zatian, ganera, ikasle guztiek enpresetan praktikak egiteko aukerea eukiko dabe.

Horrezaz ganera, autoenplegua sortzeko heziketea eskaini gura deusie emakumeei, eta amaitzeko, enpresa bat sortze-

ko egitasmoa ipiniko dabe martxan. Proiektuaren jarraipen zuzena egingo dabe hiru urtean, eta aholkularitza be emongo deusie. Azken egitasmo hori martxan ipini aurretik, dana dala, horren ganeko interesa neurtzeko azterketea egingo dabe. Eta gero, bagilaren erdian, proiektuan izena emoteko epea zabalduko dabe.

Ikastaroan 15 emakumek hartuko dabe parte, eta danetara 500 ordu baino gehiagoko iraupena izango dau ikastaro barriak. 120.000 euro inguru ipiniko dauz Udalak proiektua finantzietako, eta administratibotik beste horrenbeste lortu gura dabe.

LAGURAEAN

GETXO

8.000 pertsona Getxo Almoneda Azokan

8.000 lagun inguru izan dira joan dan asteburuan Getxo Almonedan, azokea antolatu daben bigarren urtean. Joan dan barikutik domekara arte zabaldu eben azokea Areetako metro geltokiko plazan. Salmenten kopurua be handia izan zan, eta egitasmoan parte hartu daben 43 erakusle pozik agertu dira, Kultur Etxeko arduradunek azaldu dabenez.

13 familia udan Saharako umeak hartzeko

Mendebaldeko Saharako umeak udan etxean hartzeko 15 familia lortu gura ebazan Atfal alkarteak, baina epea luzatu arren bakarrik 13 familiak emon dabe izena *Oporrak bakean* egitasmoan parte hartzeko. Antolatzaileen eritziz, Getxon bikote askok etxetik kanpo behar egitea eta interes faltea izan dira arrazoiak.

DYAk eguneko zentroa bagilaren 3an zabalik

Laguntza barik mogitzeko eta orokorrean zailtasun larriak daukiezan pertsonak zaintzeko eguneko zentroa zabalduko dau bagilaren 3an Getxoko DYAk. Zentro barria Neguriko Acacias kalean ipini dabe, eta 40 lagun hartzeko ahalmena izango dau. Getxon, Leioan, Erandion, Berangon eta Sopelan bizi diranek eukiko dabe zerbitzua erabilteko aukerea.

AGENDEA

GETXO

Erakusketak: Arteskola, Talde eta Renovar taldeetako tailerretan egiteko beharrak, Algortako Kultur Etxean. Erromoko Kultur Etxean, beste alde batetik, Hamaika taldeko ikasleek eginiko akuarelak erakusten dabilz. Erakusketa biok datorren zapatuan itxiko dabez.

BERANGO

Kultur eta kirol jardunaldiak: Ballet ikuskizuna, Kultur Etxean, 18:00etan. Bagilaren 2ra bitartean, herriko kultur eta kirol taldeen argazkien erakusketea.

LEIOA

Zinea: Kevin Spacey aktorearen ganeko zikloa amaituko da gaur, *Perseo Bideo* Forumak antolatuta. *Hurly Burly* pelikulea emongo dabe Sabino Arana Kultur Gunean, iluntzeko 20:00etan.

Erakusketak: Sakonetako erakusketa gelan Fernando Garai artistearen olioak erakutsiko dabez datorren barikura arte. Ordutegia: astelehenetik barikura, arrastiko 16:00etatik 19:00etara.